



■ HERNANIK 1000 URTE

Dokumental aurkezpena, gaur

Beñi Agirrek bukatu berri du *Hernanik 1.000 urte* dokumentala. Biterin aurkeztuko du gaur 19:30etan, eta ondoren solasaldia antolatu dute. ■

■ EUSKAL PRESOK

Auzitegi Gorenak atzeratu egin du erabakia

Asteartean elkartu zen Espainiako Auzitegi Gorena, erabakitzeko, presoei Frantzia egin dituzten urteak kontuan hartu edo ez. Ez zuten erabakirik hartu, eta urtarrilaren 13an bilduko dira berri ere. ■

■ ARRAUN ELKARTEA

Postua jarriko dute gaur azokan

Hernaniko Arraun elkarteak postua jarriko du gaur azokan egutegi, kamiseta eta abarrek. Era berean, larunbatean Plaza Berrin jarriko dute mahaia. ■

■ URTEKARIA

Bihar egingo dute aurkezpena

2014ko gertaerak biltzen dituen Urtekaria bihar aurkeztuko dute. 17 erreportaje ditu aurtengoak. Udalean izango da, 18:00etan. ■

■ GABONAK

Gabon kanten jaialdia, bihar

Herriko zazpi abesbatzek kontzertua eskainiko dute bihar, San Joan Bataiatzailean. Gabon kanten kantatuko dituzte, 20:00etan hasita. ■

■ KRONIKA

Gabonetako saskien zozketa, bihar

Hernaniko Kronikak eta Berriak elkarteak Gabonetako saskien zozketa antolatu dute beste urtebetez. Saskiak merkatariek emandako opariekin osatu dira, eta bihar zozketatuko dira, eguediko 12:00etan. ■

■ ANGEL OLARAN WUKROREN ALDEKO SAN SILBESTREA

«San Silbestrean oso giro berezia eta polita sortu zen iaz, ilusio haundikoa»

Bigarren urtez, San Silbestre lasterketa antolatu dute Hernanin, abenduak 31n, Wukrori laguntzeko. Angel Olaranen ustez, kontzientziarioa da, nagusiki, lasterketarekin lortzen dena.

URTEZAHAR egunez, abenduak 31n, korrikalariz beteko da Hernani. Wukroren aldeko San Silbestre lasterketa antolatu dute, bigarren bezala. Angel Olaranen iritziz, jendea kontzientziatzea lortzen du lasterketak, «eta hori laguntza haundia da». Izen ematea zabalik dago, 6 euroan: www.kirolprobak.com, Ibai Mendi eta Pelotadenda. Egunean bertan, 10 euro.

San Silbestrea antolatu zenuten iaz, aurrenekoz.

Nolako esperientzia izan zen? Ni ez nintzen egon, Wukron nengoelako, baina transmititu zidatena izan zen ilusio haundia. Antolatzaileak oso pozik geratu ziren. Lasterketaren inguruan oso giro berezia eta polita sortu zen, Wukroren egoeraren kontzientzia oinarri zuena. Eta parte hartzea ere haundia izan zen, 450 korrikalari Wukrori laguntzeko festan.

Eta nola laguntzen dio lasterketak Wukrori?

Kontzientziarioa da punturik garrantzitsuenak. Hori laguntza haundia da. Hernanin, herritar gehienek daukate Wukroren berri, ezagutzen dute bertako egoera, gutxi asko. 5.000 kilometro daude Hernani eta Wukroren artean, eta ematen du ondoko auzoa dela; oso gertuko sentitzen da. Lasterketarekin, Wukro herritarren agendan jartzen dugu berriro, nolabait esateko. Eta gabonetan gaudela, behar bada laguntzera animatuko dira. Wukro Hernanira ekartzen dugu, eta Hernanitik laguntza



Angel Olaranen arabera, laguntza haundia ematen du San Silbestreak, Wukroren egoeraz kontzientziatzen.

eramaten dugu Wukrori.

Zergatik lasterketa bat?

Askotan, irudimen kontua izaten da. Izan zitekeen futbol partidu bat, antzerki saio bat, kontzertu bat... Baina harrera ona daukaten ekintzak dira lasterketak, oso giro atseginean eta gertukoan ospatzen direnak. Beste zenbait lasterketa ere egiten dira, helburu solidarioengatik.

San Silbestreak hiru helburu ditu: aurrenekoa, Wukroren errealitatea ezagutaraztea.

Zein da bere errealitatea? Behar ekonomiko haundia dago Wukron, eta lasterketak ekarpen bat egiten dio behar horretan. Elikaduran segurtas-

«Lasterketarekin, Wukro herritarren agendan jartzen dugu berriro. Eta gabonetan gaudela, laguntzera animatuko dira agian»

sunik ez dago, hurrek ez daukate ziurtatuta jatekoa izango dutela. Eta horrek, garapen mentalean ere eragina dauka. Osasungintzan ere, arazo bat dago. Den dena ordaindu behar du pazienteak: bendak, gasak, eskularruak...; hezkuntzan, berriro, oso ondo irakasten den arren, altzari gehiago behar dira, desertu antzean baitaude eskolak...

Bigarren helburua da Wukron oinarritzko kirola sendotzea.

Hurrei kirola praktikatzeko aukera eman nahi diegu. Helburua ez da kirolari profesionalak edukitzea, nahiz eta maila haundikoak ere ateratzen ari diren. Gure nahia da, hurrek kirola praktikatzeko, giza baloreak barneratzeko modu gisa, bide batez.

Eta hirugarrena, gabonetan festa egun polit bat pasatzea. Nola ospatzen dituzte gabonak Wukron?

Gabonek indar haundia daukate, baina ez dute hemengoekin antzik. Oso festa goxoak dira. Dantza egiten dugu, kantatu, jan eta edan... Ez daukate hemengo kutsu kontsumista. ■

MARI FE
ARRANDECIA
NAGUSIA 36 943 550 489

tripontzi taberna
PINTXOKI BIZIKOZ ENTSEKLEKIZ
BOKATU PLATER BORBINETOZ
ZATOZ DESTATZERA!
Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI
943 555 724

FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com
Orkolaga, 57
943-55 79 01
HERNANI

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Chucla Kardaberaz 48 943 551793 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA
GAUR Zerua lainotuta egongo da, eta goizean euri pixka bat egingo du, baina atertzeraz egingo du. Hegoaldean eguzkia ere aterako da. Min.9°/Max.15°

BIHAR Lainoak izango dira oraindik nagusi, baina eguzkia ikusteko aukera haundiagoa izango da. Temperatura antzeko ibiliko da. Min.7°/Max.14°
 (euskalmet)

PLENOA

2015eko aurrekontuak bozkatuko dituzte gaur

Hamar puntu bozkatuko dituzte eta tartean izango dira hiru mozio. Pleno aretoan izango da, iluntzeko 19:00etan hasita.

URTEKO azkeneko Plenoa bilduko da gaur Udalean. Hamar puntu aztertuko dituzte, 19:00etan.

Puntu guztien artean bategarriak, garrantzi berezia izango du: gaur bozkatuko dira 2015 urterako Hernaniko Udalen aurrekontu orokorrak.

Hiru mozioak dira: presoen egoerari buruzkoa, 'Berriak' elkarteak aurkeztutakoa eta Gizarte larrialdietarako diru laguntza indartzea.

Beste bederatzi puntuen artean, hiru mozioak izango dira: Presoen egoerari buruzkoa bat; 'Berriak dendari elkarteak' aurkeztutakoa bestea; eta azkenekoa, Gizarte larrialdietarako diru laguntza lerroa indartzeko proposamena. ||

KIROL SARIA

Hiru sari, hiru hernaniarri

Hernani Saria ekitaldia izango da bihar, Biterin, 19:00etatik aurrera.

AURTEN ere Hernanin kirol arloan lan egin duten pertsonak sarituko dira. Kirol elkarrekin eta banakakoek erabaki dute, zeinek merezi duen. Hiru saritu izango dira: lorpenak izan dituzten banakako emakumezko eta gizonezkoak;

eta kirol munduan ibilbide bat izan duen hernaniarra.

Ekitaldian baita ere, kirolaren inguruko hitzaldia antolatuko dute, Euskal Selektzioaren inguruan. Bertan izango dira Patxi Jauregi, Euskal Pilota Federazioaren presidentea eta Iñaki Lasku-

rain, Euskadiko Errugbi Federazioaren presidentea. Mahai-inguru formatua izango du eta herritarrek parte hartu ahal izango dute. Ekitaldia 19:00etan da Biterin. Lehendabizi mahai-ingurua izango da, eta saribanaketa ondoren. ||

EAJ-HAMAIBAT PRENTSA OHARRA

«2015eko aurrekontuei Osoko Zuzenketa egin diegu»

EAJ-Hamaikabat alderdiek elkarrekin egin dute zuzenketa. Kronikara bidalitako prentsa oharrean bederatzi arrazoi eman dituzte.

GAUR bozkatuko ditu Plenoak 2015eko udal aurrekontuak. EAJ eta Hamaikabat alderdiek kontra bozkatuko dute, eta elkarrekin Osoko Zuzenketa egin diete aurrekontuei.

Bederatzi puntu

Kronikara bidalitako prentsa oharrean bederatzi arrazoi zehaztu dituzte:

«1. Herriko gestioa aurrera eramateko funtzionatzen dute kanpoko aholkularitza zerbitzuekin eta konfiantzazko pertsonekin.

2. Kooperaziorako jartzen den diruaren %25 hernaniarrentzat izan beharko lukeela uste dugu, hau da, munduan zehar proiektuak dituzten hernaniarrentzat. Aportazioak zuzena izan beharko lukeela uste dugu.

3. Aurrekonturako aurreikusitako 450.000 euroko prestamoa bidegabea iruditzen zaigu. Bilduren gobernua aurrezteko esfortzua egin zezakeen gastu orokorretan, konjelazio fiskala konpentsatu ahal izateko. Bide erraza hartu du, prestamoa eskatzea.

4. 1.200.000 euro xahutuko dira igerileku irekietako basoak haunditzeko. Gure ustez, Bilduk hauteskundeak direlako egin nahi du obra hau, duen irudia hobetzeko. Diru horrek behar luke beharra duten 600 familientzat; elikagai bankua erabiltzen duten edo arrisku egoeran dauden hernaniarrentzat.

5. Auzoak rehabilitatzea azaltu dira.

6. Aurrekontuan diru sa-

rrierak haunditu diren arren, Ongintzarako kopurua murriztu egin da, eta gizarte politiketarako partida ez da haunditu.

7. Atez atekoan 1.500.000 euro gastatzen jarraitzen delako. Garbitaniari ordaintzen zaizkio, merkeago egingo lukeen beste enpresaren bat ba ote dagoen aztertu gabe.

8. Bildu Garapenerako entitate bat gestionatzeko gai ez delako. Interes partidistak izan ditu kontuan, eta Sagardotegiak-Garbitania berri bat montatu dute hiru herriren artean.

9. Dirulaguntzen politika ez dugulako konpartitzen. Zenbait kolektibori zuzenean ematen zaie, lehiaketetara aurkeztu gabe». ||

BERTSOLATA

Umeen saioa, gaur

Bertso paper lehiaketako sariak banatuko dituzte. Maialen Lujanbio eta Beñat Gaztelumendik eskainiko dute saioa.

HERNANIKO ikastetxeetako neska-mutilek bertso paper lehiaketan parte hartzeko aukera izan dute. Hiru gai eman dizkiete, eta hiru bertso egin dituzte. 5garren mailako ikasleek hartu dute parte, eta onenek gaur jasoko dute saria. Umeentzako saioaren barruan, Maialen Lujanbiok eta Beñat Gaztelumendik kantatuko dute gaur. Biterin

izango da, 14:30etan.

Gaztetxean, bihar

Bertsolatak bihar izango du segida. Bertso musikatuak antolatu dituzte Gaztetxean, 22:00etan. Alaia Martin, Arkaitz Oartzabal, Eli Pagola eta Beñat Gaztelumendi izango dira bertan. Eta Amaia Agirre ariko da gai jartzaile lanetan. ||

JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Jende ilara horiek ez dira hirugarren mundukoak

Argazkian ikusten duzuen jendetza Hernaniko Kutxabanken ikus dezakezu noiznahi, kola egiten. Hori al da bezeroaren zerbitzura egoteko modua, Kutxabankek dion bezala?



Ilarak, Kutxabanken egoitzan.

Jexux Eizagirre Portillo

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

IV. URTEBETETZEA
Francisco Zabalo Amorena
VI. URTEBETETZEA
Conchi Mariezcurrena Aguirrezabala
 -Goian beude-

Betiko izango zaituztegu gogoan.

Haien animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitetzela **Abenduaren 24an, arratsaldeko 19:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo Urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko abenduaren 18an

IRAGARKI MERKEAK

Sukaldaria behar dugu jatetxe batean, esperientziarekin. Urtarrilean hasteko. Deitu: 600 668 957

Trufa bikainak egiten dira enkarguz (Hernanirako). 24 trufa 12 €. Deitu: 654 55 10 68
 15 m2ko garaje itxia salgai Mañe y Flaquer 4 zenbakian. Koxea eta motorra sartzeko nahiko leku dago. 22.000 € negoziagarriak. Deitu: 638 784 065 (Carol)

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)